

DROGAMENDEKOTASUNEN PREBENTZIORAKO ZERBITZU KONTRATUAREN BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUAK

I.- KONTRATUAREN EDUKINA

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Drogamendekotasunei aurre hartzeko zerbitzua emotea. Zerbitzu hau bi arlotan oinarritzen da:

- Bermeon prebentzio unibertsala kudeatzea.
- Bermeon drogen kontsumo arazotsua daukien gazteei eta nerabeei zuzendutako arriskuen prebentzio eta murrizketa kudeatzea.

Bi arlo honeen kudeaketa gitxienez bi pertsonaz osaturiko lan taldeak garatuko dau.

2. ESLEIPENA EGITEKO BIDEA ETA MODUA

Kontratu honen esleipena negoziazio bidez egingo da, Sektore Publikoaren Kontratuen 30/2007 Legearen 160., 161. eta 162. Artikuluetan bat etorritz, testu horren 158.e) artikuluan jasotako kasua baita.

Edozein alderdi ekonomiko, tekniko edo logistiko negoziatu daiteke parte-hartzaileekin, kontratuaren gaiari lotuta badago.

Sektore publikoaren kontratuen 30/2007 Legearen 134. artikulua xedatutakoa beteaz, ondorengo esleipen irizpideak ezartzen dira, baita hartzen dan erabakiaren hastapena ere.

1. Eskaintza ekonomikoan hobekuntzak: 60 punturarte baloratuko da. Eskaintza ekonomikoaren moetea gutxitzen dan %0,2ko, puntu batean baloratuko da.
2. Zerbitzua gauzatzeko proposamen teknikoa: Enpresak agiri tekniko baten bidez kontratatu nahi dan zerbitzuaren proposamena 30 punturarte baloratuko da.
3. Zerbitzuaren hobekuntzarako proposamenak: Atal honetan zehaztu diran zerbitzuei buruzko hobekuntzetatik aparte, enpresak agiri tekniko baten



aurkezten dauzan bestelako hobekuntza bakoitzagaitik 2 puntu, gehienez 10 puntu (proposamenak zerbitzuren hobekuntzarako izan behar dira).

3.- BALIZKO PERFILAK ETA FUNTZIOAK

a) Ezaugarriak:

- Erdi mailako titulazioa, humanistika, psikologia, soziologiako diplomatura, besteak beste.
- Bermeo ezagutzea: gizarte, erkidego eta hezkuntza baliabideak, elkarteak,...
- Euskeraz berba egin eta idaztea: 3. Hizkuntza eskakizuna.
- Ingelesez dagozan materialak erabili eta bezeroei gaztenalia eta euskarara itzultzeko gaitasuna.
- Ordutegira egokitu eta funtzioak behar legez bete ahal izatea: elkarteekaz bilerak, jarduerak,...
- Tresna informatikoak erabili ahal izatea: testu prozesatzailea, kalkulu orriak, estatistika programak, datu baseak, sare ingurunea,...
- Batez ere, drogen inguruko zailtasunak daukien familiei orientazio eta aholkularitza emoteko gaitasuna izatea.

b) Funtzioak:

- Erkidegoan drogomenpekotasuna behar bezala ezagutzeko jarduerak gauzatzea.



- Udal alor eta erakunde kolaboratzaileekaz batera jarduerak planifikatzea.
- Pertsoneri, familiei eta taldeei gizarte baliabideen inguruko informazioa eta aholkularitza emotea eta, beharrezkoa danean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara edo zerbitzu espezializatuetara bidaltzea.
- Osasun eta hezkuntza zerbitzuekuz batera lan egitea.
- Bizimodu osasungarriak sustatzea.
- Drogamendekotasuna prebenitzeko erkidego jarduera espezifikoetako programak garatzea, Bermeoko Udalaren Prebentzio Planaren barruko helburuak betetzeko programak, hain zuzen.
- Drogamendekotasuna prebenitzearen inguruan, erakunde publikoek argitaratutako diru laguntzak eskatu eta tramitatzea, Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko Zuzendaritza organoen onespena badabe.
- Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatuko administrazio organoekaz kolaboratzea diru laguntzak tramitaterakoan, txostenak eginez,...

c) Ordu-tegiak:

Gitxienez 35 ordu astean:

- Bulego orduak eta jendeari arreta eskeintzeko orduak.
- Programak martxan jarri eta ezarri.



- Materialak landu.
- Beste erakunde edo elkarteekaz bilerak.

Talde teknikoak erabakiko dau orduen banaketa.

4. ZERBITZUA EMOTeko TOKIA

Bermeoko Gizarte Ongizaterako Udal Patronatua (Areilza 4)

5. KONTRATUA BURUTZEKO EPEA

Kontratuaren iraupena urte batekoa da.

6. KONTRATUAREN PREZIOA

Kontratuaren prezioa 59.940 €-koa da, BEZ kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa 10.789 €koa da.

7. EUSKARAREN ERABILERA

Ezinbestekoa da lan taldeko kideek euskaraz berba egiteko eta idazteko gaitasuna eta maila izatea. Zerbitzua euskaraz emotea beharrezkoa da.

Bermeon, 2010eko urriaren 20an

